

Nunca serás tan joven



Komunikazioa eta
informazioa

Nunca serás tan joven

Asteroko irratsaio bat da, bi ordukoa, baina bada hori baino gehiago ere:

- Zuzeneko irrati-show bat da. Publikoarekin. Oro har larunbatetan grabatzen da (zuzenean), eta igandean ematen da, 12:00etatik 14:00etara, Onda Vascan.
- Euskal geografian barrena egindako saio ibiltaria da: astean herri edo leku jakin batera jotzen du irratsaioak, hango elkarte batera, talde batengana... Eta, han, irratsaioa egiten da zenbait *leitmotiv* hartuta: zahartze aktiboa, partaidetza (bertaratzen direnena), belaunaldiartekotasuna, bertako kulturaren sustapena eta abar.
- Entretenimendua da programaren ardatza. Gauza garrantzitsuez hitz egitea da asmoa, baina modu entretenigarrian (bihurrikeria apur batez ere bai batzuetan, batez ere adinekoek hitz egiten dutenean).
- Adinekoentzat eta adinekoekin egindako programa da. Adinekoek ere hartzen dute parte programa prestatzen eta egiten, baita zenbait erakundek ere (elkartek, udalak, elkargoak, enpresak, egoitzak, fundazioak eta abar), eta adinekoen bizi esperientzia optimizatzea da helburua.
- Adinekoekin lotutako gaurkotasun gaiak aztertzeke albiste saioa da, eta hainbat gai jorratzen dira: zahartze aktiboko politika instituzionalak, gizarte politikak, enpresa sektorea (zilarrezko ekonomia), hirugarren sektorea eta hezkuntza sistema.
- Saio sortzailea eta eszenikoa da, publiko eta guzti egina. Diskurtso elementuak jorratzeaz gain, errealitate sozial eta kulturala ere erakusten du, zenbait diziplina baliatuz; esate baterako, zuzeneko musika (abesbatzak, bandak, akustikoak), irrati antzerkia, poesia, bakarriketak...
- Gure izaera mediatikoagatik, eta euskal gizartea Euskadi Lagunkoiaren inguruan erakusten ari den interesa ikusita, herrigintzako egitasmo hori oso presente dago NSTJn.

Gure herrietara eta hirietara egiten ditugun bisitetan, leku horiek adinekoentzat lagunkoia izateko beren proiektuei buruz hitz egin nahi izaten digute udalek, adinekoen elkarrekin,

inplikaturako enpresek eta lotutako beste eragile batzuek. Hortaz, Euskadi Lagunkoia oso maiz agertzen da gure edukietan.

Nunca serás tan joven saioak bere egiten du Bizkaiko Foru Aldundiaren 2011ko txostenak hedabideen eginkizunari buruz esandakoa: «beharrezkoa da hedabideek belaunaldien arteko ikuspegia duten saioak edo guneak sustatzea, eta horietan belaunaldi guztietako jendeak parte hartzea; saio edo gune horietan den-denon intereseko gaiak aztertu behar dira, eta lagundu behar dute belaunaldien arteko “distantzia txikitzen”, elkar ulertzeko, eta denon artean adin guztiak aintzat hartuko dituen gizarte bidezkoago eta kohesionatuago bat eraikitzen». Horiek dira, hain zuzen ere, *Nunca serás tan joven*ek hiru denboralditan astero-astero landu dituen ildoak eta edukiak.

1. Erakunde sustatzaileak

Onda Vasca eta Jokin Gonzalez

2. Erakunde mota

Pribatua

3. Xede taldea

Familia osoa, baina batez ere adinekoak, adimen desgaitasuna edo Downen sindromea duten pertsonak, gaixotasun mentala duten pertsonak, parkinsona edo alzheimerra dutenak eta abar. Horiek denek aktiboki hartzen dute parte saioan.

4. Lurralde eremua

Euskadi

5. Egoera

Abian jarrita (garatzen) Hasiera data: 2015eko iraila Amaiera data:

6. Etiketak

Belaunaldi artekoa, kultura, zahartze aktiboa, partaidetza, ondarea

7. Helburuak

Adinekoak gizartean ikusgai egitea, eta gizarteari balio ekarpen bat egitea, barne hartuta inklusioa, belaunaldiartekotasuna, zahartze aktiboa (eta parte hartzean oinarritua) eta abar. Protagonismoa adinekoei emanaz egin behar da hori guztia, baina gazteak eta familiak bazterrean utzi gabe.

Zerbitzu mediatikoen ekoizleak garen aldetik, proiektu honek zenbait helburu orokor eta berariazko ditu, eta kontuan hartzen du gure errealitate hurbila. Hauek dira helburu orokorrak:

- Adinekoek metatu duten jakintza eremu pribatutik eremu publikora irits dadin ahalbidetzea (kapital soziala eta kulturala esperientziaren bidez baloratzea).
- Ikuspegi komunitario eta sozial batetik adinekoei aktiboki parte hartzeko eta laguntzeko aukera emango dieten ekimenak edo proiektuak planifikatzea eta gauzatzea (gizarte partaidetza sustatzea).
- Maila guztietan ikasteko belaunaldien arteko guneak sustatzea, pertsonen bizitzan metatutako kapital sozial eta pertsonala partekatu ahal izateko, eta guztien intereseko gaiak lantzeko.
- Zahartzearen irudia errealitatearekin bat etor dadin sustatzea: adinekoen balio eta gaitasun heterogeneo eta askotarikoak nabarmentzea.

Garatzen ari diren politika horien emaitza gisa, ***Nunca serás tan joven*** izeneko irratsaioa sortu zen, eta Euskadi eta Nafarroa osoan entzuten da, Onda Vascaren (Euskomedia SL, Grupo Noticias Taldea) sintonian.

Saio honetan lekua dute interakzioa eta belaunaldiartekotasuna bultzatzeko eremu sozial eta kultural bat sortzeko helburua duten pertsona, talde, proiektu eta ekitaldi guztiek, bat badatoz Eusko Jaurlaritzaren, IMSERSOren, foru aldundien eta udalen zahartze aktiboko planen edo proiektu zehatzagoen —adibidez, Eusko Jaurlaritzak sustatutako Euskadi Lagunkoia— berariazko helburuekin.

Proiektu horiek guztiak integralak dira, eta helburu hauek dituzte:

- Adinekoak agerikoago egitea hedabideetan, eta haiengana jotzea informazio iturri gisa.
- Adinekoei ahotsa ematea, herritar independenteak eta beren bizitzaren protagonista diren aldetik. Adinekoak erreferentzia dira gizartearentzat, bizitzan izan duten ibilbideagatik eta haien lekukotzagatik.
- Gaiak belaunaldien arteko ikuspegi batetik lantzea.
- Bereziki pertsonen eta aztertu beharreko gaien heterogeneotasuna nabarmentzea, axola izan gabe pertsona horiek bizitzako zer etapatan dauden.

8. Metodologia

Irratsaio hau jendaurreko irrati-show ibiltari bat da. Denboraldi bakoitzean 10 hilabetez egiten da, irailetik ekaina bukaerara arte, eta hauek dira ekoizpen taldeko kideak: zuzendari aurkezlea, bi soinu teknikari, aktoreak eta kolaboratzaile profesionalen sare bat, gure aztergaiarekin lotutako kontuez hitz egiteko.

Irratsaioa egiteko, ezinbestekoa da informazio eguneratua izatea gaiari buruz, kontuan hartuta erkidego, foru eta udal erakundeek eta enpresa, hezkuntza eta herritar elkarteek egiten dutena. Hau da, hedabide bat garen aldetik, informatuta

egon behar dugu egiten diren dibulgazio, sustapen eta sentsibilizazio kanpainei buruz, bai eta gertaera, data garrantzitsu, ekintza programa, ospakizun, jaiegun eta abarri buruz ere.

Aldundi, udal, sektoreko enpresa edo elkarteek hala eskatzen digutenean, haien interesei erantzuten saiatzen gara, eta saio osoa denon artean ekoizten dugu: kokapena, edukiak, publikoa, logistika, sustapen kanpaina...

Irratsaio honen ezaugarriak eta berezitasunak direla eta (ibiltaria, eszenikoa, parte hartzean oinarritua, dramatizaturik, gidoiduna, eta teknikoki exijentzia handikoa), denbora asko behar da hura egiteko eta ekoizteko, eta ez da estudioko ohiko irratsaio bat; hori baino gehiago, irratik ikuskizunaren formatua du.

Tokia eta ordua zehaztu ondoren, set bat instalatzen dugu, eta ondoren saioa grabatu, zuzeneko faltsuaren formatuan; hau da, denbora errealean grabatzen da irratsaioa, bi orduz etenik gabe, eta, gero, Euskadi eta Nafarroa osoan entzun daiteke igande goizean, 12:00etatik 14:00etara.

NSTJ hainbat tokitan egiten da: antzokietan, ekitaldi aretoetan, balio anitzeko geletan, Nagusien Etxean eta, eguraldiak aukera emanaz gero, aire zabaleko eremu publikoetan.

Sare sozialetan, webgunean eta podcasten bidez ere zabaltzen eta kontsumitzen da irratsaioa; horrela, are gehiago zabaltzen da, ikus-entzunezkoen kontsumo ohitura berriei erantzunez. Horretarako, Onda Vascaren webgunea, programaren webgunea, iVOOX plataforma, Facebook eta Twitter sare sozialak eta YouTubeko gure kanala erabiltzen ditugu. Horretaz gain, astelehenero (irratsaioa eman osteko eguna) buletina bidaltzen diegu gure kontaktuei eta jarraitzaileei (hiru denboraldi hauetan egin dugu hori) eta irratsaioa berriro entzuteko aukera dute horrela.

Lantaldeko erredaktoreak argazkiak atera eta bideoak grabatzen ditu, eta hark bildutako materiala programaren sustapenerako erabiltzen da.

9. Alderdi berritzaileak

Belaunaldiartekotasunaz hitz egitea eta ikusgai egitea da helburua, hain zuzen ere benetako partaidetzaren bidez. Kontuan izan behar dugu irratsaioan parte hartzen duten pertsonak iritzi publikoaren aurrean jartzen direla, saioa Onda Vascan ematen baita.

Gainera, adinekoekin lotutako alderdiak/gaiak aztertzen dira, baina saio espezializatua izan gabe, eta adinekoentzat interesgarriak diren bizitza errealeko beste eduki batzuk ere lantzen dira. NSTJn, pedagogia soziala egiten dugu, eta biztanleriaren sektore hori ez ezik, beste adin batzuetako jendea ere sartzen dugu tartean, gizarteari ongizate handiagoa dakarkioten balioak sortzeko. Ikuspegi horretatik, hauxe da saioaren formula berritzailea:

$$\text{NSTJ} = (\text{mce}^3) + \text{esE}$$

Hau da: *Nunca serás tan joven* = zimurren materia sortzailea ber hiru, gehi Euskadiko energia soziala. Eta noski, umorea, entretenimendua eta parte hartzea.

10. Ebaluazioa eta emaitzak

Jardunbide hau ez da ohi bezala ebaluatzen. Gure kasuan, irratsaioa egunez egun hobetzen saiatzen gara, bere helburua betetze aldera; alegia, adinekoak ikusgai egitea, eta irratsaioa ezagutzera eman eta entzuleak izatea. Entzuleak, CIES azterlanaren arabera.

11. Eranskinak eta estekak

NSTJren YouTubeko kanala

https://www.youtube.com/channel/UCNAnYOxvquvOWIOVSUEq_nw/videos?shelf_id=0&view=0&sort=dd

Flirckr argazki plataforma

<https://www.flickr.com/photos/165370488@N08/>

Ivoox kanala

https://www.ivoox.com/podcast-nunca-seras-tan-joven_sq_f1254083_1.html